JARDUKETA IZENA	C2 Antzinako Truchas Erreka arrain-haztegia lehengoratzea

Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leitzaran ibaia

LOTURA NATURA 2000rekin

Antzinako Truchas Erreka arrain-haztegia lehengoratzea Natura 2000ko plangintza-helburu hauen baitan dago:
- Ibai Korridore Ekologikoa kudeaketarako funtsezko elementuaren 3. helburu operatiboa: "Ibai korridorean oztopoak ezabatzea". Honako jarduketa honekin lotua dago, zehazki: "AP1. Proiektuak prestatu eta gauzatzea, KBEan edo inguruetan erabiltzen ez diren emakidei loturiko oztopoak iragazkortzeko/eraisteko", eta Truchas Errekako presa txikia berariaz dago jasoa.
- "*Parachondrostoma miegii* eta Komunitate iktikoa oro har" kudeaketarako funtsezko elementuaren 2. helburu operatiboa: "KBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak ezabatzea", Ibai Korridore Ekologikoaren jarduketei lotzen zaiena.

Era berean lotua dago Leitzaran ibaiak izokin arrunta (*Salmo salar*) izateko duen gaitasun potentzialarekin.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen:
- Zuzenean KBEa Kudeatzeko Planaren funtsezko elementuontzat da onuragarria: "91E0* Haltzadiak eta lizardiak", "Ibai Korridore Ekologikoa", "Bisoi europarra (*Mustela lutreola*)" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har".
- Halaber onuragarria izan daiteke Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*).

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Leitzaran ibaia. Andoaingo eta Billabonako udalerriak

Data

2015 – 2016

Aurrekontua

238.070 €

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

- Oztopoa (Truchas Errekako presa txikia), eta hark eragiten dituen arazoak bere osoan ezabatzea.
- Arrain-haztegiko instalazioak kentzea, eta ingurunea lehengoratzea.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Trucha Errekako presa txikia oztopo bat da, eta Leitzaran ibaiko arrainek ezin dute hura gainditu. Hainbat erakundek (Gipuzkoako Foru Aldundia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa) beste oztopo batzuk kentzeko egindako ahaleginaren ondotik, arrainek aurkitzen duten lehen hesi gaindiezina da, Kantauri itsasotik datozela.

Gaur egun ez da erabiltzen, eta instalazio abandonatuek (hormigoizko urmaelak, ubideak, hormigoiz estalitako azalerak, etab.) azalera zabala aldatua dute ibai ondoan (1 ha).

Lanaren deskribapena – HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA (C ekintzak)

Truchas Errekako presa txikiak ia 5 metroko jauzia sortu du; erreka alderik alde zeharkatzen du, eta egitura 33 metro da luzeran. Presaren ondoan 2 metro zabalerako ubide zabala abiatzen da, 100 metroko luzeran ura arrain-haztegiraino eramateko. Presa txiki horrek ura atxiki eta 200 metroko urtegi bat osatu du. Urtegia hurrengo presa txikiraino iristen da, hots, Olaberriko Zentral Hidroelektrikoraino. Zentrala lanean ari da. Zentraleko presa txikia ere gaindiezina da, baina badu arrainendako eskala bat. Eskalak arazoak ditu; izan ere, diseinuak eraginda, arrainak bakarrik igaro daitezke ur maila altua denean.
Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA
Aurreikusia dago Truchas Errekako presa txikia bere osoan eraistea, harik eta erreka lehengoratu arte. Halaber, ubidea eta urmael guztiak kenduko dira, bai eta kanalizazioak, eraikinak eta arrain-haztegiko hormigoizko beste atal batzuk ere. Eremua lehengoratze aldera, urtegi zaharreko sedimentuak ekarri, eta inguru honetako berezko espezieak landatuko dira (haltzadia eta baso mistoa). Era berean, Olaberriko Zentral Elektrikoan arrainen pasaerarako dauden arazoak konpontzea dago aurreikusita, eskalak beti funtziona dezan, ur maila edozein izanda ere.
JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK
Truchas Errekako presa txikia bere osoan ezabatzea espero da, eta era berean, arrainek Olaberriko zentrala zeharkatzea. Halaber, egitura abandonatuak ezabatuko dira, hau da, eraikinak, urmaelak eta ubideak, eta baso-eremua sortuko da.



Irekibai · Natura 2000 · Life · Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · ura · hazi · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. · Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

C2: Aintzinako "Truchas Erreka" arrain-haztegia lehengoratzea